

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Alkatearen eginkizunak eskuordetzea

Alkatearen urriaren 5eko 314/2020 Ebazpenaren bidez, ondoren hitzez hitz jasotzen den xedapen zatia onartu zen:

Lehenengoa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 23.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Amagoia Sáez de Ibarra Veá-Murguía lehen alkateordearengan uztea alkatearen eginkizun guztiak 2020ko urriaren 8tik 16ra bitartean, biak barne, alkatea oportetan egongo baita.

Bigarrena. Eskuordetzearen barne daude zuzentzeko eta kudeatzeko ahalmena, bai eta kasuan kasuko administrazio prozedurak ebaztekoa ere, hartu beharreko administrazio egintzak hartuta.

Hirugarrena. Organo eskuordeak, gerora, eta betiere eskatzen zaionean, aipatutako epean egindako kudeaketaren eta hartutako xedapenen berri eman beharko dio alkateari, eta erabaki garrantzitsuak izanez gero, aldez aurretik, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 115. artikuluan xedatzen duenez.

Laugarrena. Dekretu honen bidez ematen den eskuordetzeak organo eskuordearen onespena behar du eraginkorra izan dadin, eta isilbidez onetsi dela ulertuko da baldin eta alkateari ez bazaio eskuordetzearen kontrako adierazpenik idatziz aurkezten ebazpen hau jakinarazten den egunaren hurrengotik hasi eta hiru egun balioduneko epearen barruan.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta horren berri emango zaio udalbatzari egiten duen lehenengo bilkuran.

Seigarrena. Ebazpen honetan berariaz aurreikusi ez den guztian zuzenean aplikatuko dira arau hauetan eskuordetzeei buruz xedatutakoak: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua.

Dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 44.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Dura, 2020ko urriaren 5a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE